

MERKATARITZA NON, BIZIA HAN!

Merkataritza-Ganberaren azken txostenak (2007) dioenez, gure erosketen **%70 azalera handiko merkatal guneetan egiten dugu**. Datua esanguratsua da eta deno txikiei tarte txikia uzten die egoera zail honetan aurrera egiteko. Joera ulertzeko pisuzko arrazoiak daude: prezioa, eskaintzaren ugaritasuna edo aparkatzeko erraztasuna.

Tolosako Ingurumen Zentrotik kontsumo arduratsuaren aldeko mezua zabaldu nahi dugu. Izan ere, txikizkako merkataritzak ekarpen asko egiten ditu:

1 Denda txikiak dituzten kaleak **askoz ere biziagoak dira**, eta kale horiei nortasun eta izaera propioa ematen dizkiete.

2 Dendetako **harremana zuzena** eta hurbilagoa da. Bizikidetzaz jorratzen da, eta horrek segurtasuna ematen du, afektuaz gainera.

3 Dendetako merkatariek duten **esperien-tziagatik**, bezeroari **aholkularitza zuzena** ematen diete eta modu atseginagoan eskaintzen zaie zerbitzua.

4 Azken urteotan denda txikien bilakaerak **espezializatzeraz** jo du eta **kalitatearen aldeko apustua** egin du.

5 Txikizkako merkataritzan soltean edota **benetan behar duzuna** erostea askoz errazagoa da, azalera handiko merkatal guneetan baino. Izan ere, merkatal zentro handietan geroz eta arruntago bihurtu baitira bildutako produktuak eta tamaina handiko kaxak, gure gizartean dauden bestelako beharrei erantzunik eman gabe: adineko pertsonak, bakarrik bizi diren edadetuak, emantzipatutako gazteak...

6 Europako toki askotan merkatal eredu tradizionalera bueltatzen ari dira: hiriak **berpizteko**, kaleak **gizatartzeko** eta gune publikoak **sustatzeko**.

7 **Herriko azoken berpizte prozesuak** gizarteari onura bikoitza dakarkio: alde batetik, bertako merkataritza sustatzea eta bestetik, gertuko nekazaritza berreskuratzea. Horrela, bertako produktuen eta hemengo ekologikoen kontsumoa bultzatzen da.

8 Txikizkako merkataritzak **aberastasuna** sortzen du, **ongizatea** ekartzen du eta hiria egituratzen du.

9 **Hirigunean dendak eta merkataritza establezimenduak izateak eredu jasangarriagoa ekartzen du**, gertutasunagatik eguneroko joan etorriak errazagoak gertatzen direlako. Orokorrean, desplazamenduak eta errepedeen saturazioa ekiditen dituzte.



TOLOSAKO
UDALA



tolosakoingurumenzentroa

TOLOSA2015

